JESUITAS Loiola Probintzia

Pastoral juvenil y vocacional

ORACIÓN POR LAS VOCACIONES

JUNIO 2008

# ...en el corazón



"Dice Dios: "Dame tu corazón"…
Y luego, en respuesta a mi perplejidad, le oigo decir:
"Donde está tu tesoro, allí está tu corazón".
Mis tesoros… Helos aquí:
personas… lugares… ocupaciones… cosas…
experiencias del pasado…
esperanzas y sueños del futuro…
Tomo cada uno de estos tesoros, le digo unas palabras y lo pongo en presencia del Señor…
Al final me quedo solo ante el Señor.
A él le doy mi corazón, diciendo: "Tú, Señor, eres mi vida. Tú eres mi destino".

*Tony de Mello, SJ*

El ángel le dijo: «No temas, María, porque has hallado gracia delante de Dios; vas a concebir en el seno y vas a dar a luz un hijo, a quien pondrás por nombre Jesús. El será grande y será llamado Hijo del Altísimo, y el Señor Dios le dará el trono de David, su padre; reinará sobre la casa de Jacob por los siglos y su reino no tendrá fin.» María respondió al ángel: «¿Cómo será esto, puesto que no conozco varón?» El ángel le respondió: «El Espíritu Santo vendrá sobre ti y el poder del Altísimo te cubrirá con su sombra; por eso el que ha de nacer será santo y será llamado Hijo de Dios. Mira, también Isabel, tu pariente, ha concebido un hijo en su vejez, y este es ya el sexto mes de aquella que llamaban estéril, porque ninguna cosa es imposible para Dios.» Dijo María: «He aquí la esclava del Señor; hágase en mí según tu palabra.» Lc 1,30-38

Dios Padre bueno, que nos diste a Jesús por medio del sí de María. Ayúdanos a que, con su ayuda vayamos diciendo que sí a tu invitación a la vida que cada día nos haces y así sirvamos más enteramente a tu divina majestad. Te lo pedimos por Jesucristo Nuestro Señor.

Ahultasunetik

Jauna, zu izan zaitugu gizakion babesleku
gizaldiz gizaldi.
Mendiak jaio baino lehen,
lurra eta mundua sortu baino lehen,
hortxe zeunden zu, Jauna.
Gure bizitza azkar igarotzen da.
Mila urte zuretzat
atzo igaro zen egunaren pareko dira,
gau-ordu baten pareko.
Zuk ikusten dituzu gure erruak,
zeure begi-argitan gure bekatu ezkutuak.
Bizitza luzeak bizitzen ditugu, eta horietan
hustasuna eta hutsala dago asko,
hainbeste gauza baitaude desagertzen direnak
eta arin doazenak.
Erakutsiguzu sakonetik bizi gaitezen,
benetan garrantzitsua denak bete ditzala
gure burua eta gure bihotza.
Argi gaitzazu, Jauna, irakats zure seme-alabei.
Ase gaitzazu goizero zeure maitasunaz,
bizitza guztia poz-oihuz zorionean igaro dezagun.
Bete gaitzazu zentzuz, inoiz eskas ibili bagara,
emaguzu bakea galtzen dugunean.
Jakin dezagula zure egintza eta zure distira aurkitzen.
Ekintza duinak sor daitezela gure bizitzatik.
Jauna, zu izan zaitugu gizakion babesleku
gizaldiz gizaldi.

90. salmoaren egokitzapena



**El sembrador** / **Ereilea**, 1888 / Vincent VAN GOGH

ES DE MAESTROS SEMBRAR EN EL ESPÍRITU / ESPIRITUARENGAN EREITEA MAISUEN EGITEKOA DA

Desde la fragilidad

Señor, tú has sido un refugio para los seres humanos
de generación en generación.
Desde antes de que surgiesen los montes,
antes de que naciesen tierra y cielo
tú estabas ahí, Señor
Nuestra vida pasa rápido
Mi años ante tus ojos
son un ayer que pasó,
un suspiro en la noche.
Tú ves nuestros secretos,
tú desnudas nuestras pequeñeces.
Vivimos vidas largas, y en ellas
hay mucho de vacío y vanidad,
hay tantas cosas que se desvanecen
y pasan rápido.
Enséñanos a vivir desde lo profundo,
que lo verdaderamente importante
llene nuestra cabeza y nuestro corazón
Ilumínanos, Señor, enseña a tus hijos.
Sácianos con tu amor cada día
y entonces gozaremos y cantaremos de por vida.
Llénanos de sentido si alguna vez nos ha faltado,
danos paz cuando la hayamos perdido.
Que sepamos descubrir tu acción y tu esplendor.
Haz que de nuestra vida surjan obras dignas.
Señor, tú has sido un refugio para los seres humanos
de generación en generación.

Adaptación del salmo 90

Jainkoa dio: “Emadazu zure bihotza”…
Eta gero, nire harriduraren erantzun gisa entzuten diot esaten:
“Zure altxorra non, hantxe dago zure bihotza”.
Nire altxorrak… hara hemen:
pertsonak… lekuak… zereginak… gauzak…
iraganeko esperientziak…
itxaropenak eta etorkizuneko ametsak…
Nire altxorretako bakoitza hartu, hitz batzuek esan eta Jaunaren aurrean jartzen ditut …
Azkenean bakarrik gelditzen naiz Jaunaren aurrean.
Berari ematen diot nire bihotza, esanez: “Zu zara, Jauna, nire bizitza. Zu zara nire helmuga”.

*Tony de Mello, SJ*



Jainko Aita ona, Mariaren baietzaren bidez Jesus eman zeniguna. Lagun iezaguzu, Mariaren laguntzaz, egunero egiten diguzun bizitzarako gonbitari baietz esaten jarrai dezagun eta, horrela, hobeki zerbitza dezagun zure Jainko handitasuna. Jesukristo gure Jaunagatik eskatzen dizugu.

Aingeruak esan zion:Ez beldurtu, Maria! Jainkoak gogoko zaitu. Hara, haurdun gertatuko zara, semea izango duzu eta Jesus ipiniko diozu izena.Handia izango da, Goi goikoaren Seme deituko diote, eta bere aita Daviden tronua emango dio Jainko Jaunak. Israel herriko errege izango da betiko, eta beraren erregetzak ez du azkenik izango. Mariak esan zion aingeruari: Baina nola gerta daiteke hori, ez bainaiz gizon batekin bizi? Aingeruak erantzun zion: Espiritu Santua etorriko da zuregana, Goi goikoaren indarrak hodeiak bezala estaliko zaitu; horregatik, zuregandik jaioko dena santua izango da eta Jainkoaren Seme deituko diote. Begira, Elisabet zure lehengusina ere haurdun gertatu da bere zaharrean eta sei hilabeteko dago agorra omen zena; Jainkoarentzat ez baita ezer ezinezkorik. Orduan, esan zuen Mariak: Hona hemen Jaunaren mirabea. Gerta bekit zuk esan bezala.

Lk 1,30-38